

## GHERO

0 SARRERA

**Urruneko galaxia batean, 3.000garren urtean.**

Hiru mediku beste batekin (Doktorea, emakume gazte bat) hizketan.

**Medikua 1 2 3**

() Feli^ca

**Doktorea**

Feli^ca.

Denek barre egiten dute.

**Medikua 2**

Vi pasis la teoriajn ekzamenojn.

**Medikua 3**

Cum bonega rezulto.

**Mediku 1 eta 2**

Hip hip

**Medikua 3**

Hurra.

**Mediku 1 eta 2**

Hip hip

**Medikua 3**

Hurra.

**Mediku 1 eta 2**

Hip hip

**Medikua 3**

Hurra.

Denek txalo eta barre inozoa egiten dute.

**Medikua 1**

Vi nur bezonas la praktikan teston.

**Medikua 2**

Et la pozicio estos via.

**Medikua 3**

Vi estas preta?

**Doktorea**

Konpreneble.

**Medikua 1**

Esto malsana serioza.

**Medikua 3**

Kalkulita lian morton en naudek minutoj.

**Medikua 2**

Ni forigis doloron. Havos agrablam morton.

**Medikua 1**

Volas ke vi traktu ĝin. La paciento estas...

Alde guztietara begiratzten dute, sekretua ez barreiatzeko.

**Medikua 1, 2, eta 3**

...ekscentra.

Doktorea izutzan da.

**Doktorea**

La malsano ekszentra ne estas mia specialaĵo.

Denek barre egiten dute.

**Medikua 2**

Li petis ke vi estas.

**Doktorea**

Kial?

**Medikua 1**

Ne scias.

**Medikua 3**

La malsano perdis sian kapon. Havi delikoin.

**Medikua 1**

Krome, li forgesis la tutmondan lingvon.

**Medikua 2**

Suferas parcial afasia.

**Medikua 3**

Li nur tenas sian patrinan lingvon. Euskera.

**Doktorea**

Euskera?

**Medikua 1**

Morta linguo.

Denek barre egiten dute.

**Medikua 2**

Prenu ĉi tiun tradukiston.

Euskeraz hitz egiteko gailua ematen diote.

**Medikua 3**

Do vi povas komuniki kun ŝi.

Doktoreak itzultzailea konektatzen du.

**Doktorea**

Eskerrik asko.

Medikuek harridura adierazten dute hitz arrotzagatik.  
Doktoreak ere. Zuzendu egiten du.

**Doktorea**

Dankon.

**Medikua 2**

Gravas ke estu trankvila. Havu feliĉan morton.

Laurek kantatzen dute.

**Koroa**

Gravan ke estu trankvila,  
havu felizan morton.

La kuracistoj estas por tio,  
per dividi felicon.

Trankvila kaj normala vivo,  
kaj felica morto ce la fino.

Tiel funkcias la perfekta mondo,  
tiel funkcias la felica homaro.

**1. HEMEN ETA ORAIN**

Doktorea gaixoaren ondoan dago.

Etzaleku bat dago, baina gaixoa gune eszenikoan zehar mugituko da, askatasunez. Osasun sistema eraginkorrari esker, azken hatsa eman arte minik gabe eta kemenez arituko da.

Lantzean bere bihotz taupadak neurtzen dituen makinaren bip-bip-a entzungo dugu.

**Doktorea**

Saluton. Mi estas via kuracisto.

**Gizona**

Zer?

**Doktorea**

Mi diras que mi estas via kuracisto.

**Gizona**

Eh?

**Doktorea**

(Astiro) Mi-estas-via-kuracisto!

**Gizona**

What?

**Doktorea**

Atendu (Egon)

Doktoreak itzultzaile birtuala konektatzen du.

**Doktorea**

Zure medikua naiz.

**Gizona**

Ah, zu zara... Neuk eskatu dut zu etortzea. Baina... zergatik ez dizut ulertzen normal egiten duzunean? Translаторrik gabe?

**Doktorea**

Afasia daukazu. Arazo neurologiko bat. Hizkuntza globala garunetik ezabatu zaizu.

**Gizona**

My god!

**Doktorea**

Orain bakarrik hizkuntza hau egiten dakizu...

**Gizona**

(Izuturik) Euskera??

**Doktorea**

Hala esaten dela uste dut.

**Gizona**

It's not possible! Ni normala naiz. Hizkuntza globala ulertzen dut perfectly.

**Doktorea**

Eta zergatik ez didazu lehen ulertu?

**Gizona**

Ez dudalako arreta jarri. Egin berriro!

**Doktorea**

Mi parolas al vi en tutmonda lingvo.

Gizonak ulertzeko keinua egiten du.

**Gizona**

Ah! Ah!

**Doktorea**

Cu vi konprenas?

Gizonak ez du ulertu baina baietz egiten du buruaz.

**Doktorea**

Kaj se mi diros al vi ke tu estas imbecila?

Gizonak baietz egiten du.

**Gizona**

Aha...

Doktoreak irribarrez, baietz egiten du buruaz.

**Doktorea**

Ke tu estas abomeninda?

Gizonak barre egiten du.

**Doktorea**

Beno, nahikoa. Ez duzu ulertzen.

**Gizona**

Orduan euskeraz besterik ezin dut egin?

**Doktorea**

Bai. Zure ama hizkuntza?

**Gizona**

Yes.

**Doktorea**

Hizkuntza zahar guztiak desagertuta zeudela uste genuen.

**Gizona**

You are wrong! Nire arbasoak tematu ziren hizkuntza hau gordetzen. Belaunaldiz belaunaldi.

**Doktorea**

Hizkuntza globala daukagu eta, zertarako...?

**Gizona**

Good question!

**Doktorea**

Zu bezelako besterik dago?

**Gizona**

Ez! I'm the last. Azken euskalduna! Opari ederra! Nik normala izan nahi nuen, like everybody!

Doktorea aparailuren bat manipulatzeko hasten da.

**Gizona**

What are you doing?

**Doktorea**

Zure konstanteak aztertzen ari...

**Gizona**

Forget it. Hiltzera noa, ezta?

**Doktorea**

Bai. Zure heriotza ordubete barrurako kalkulatu dago.

**Gizona**

Horregatik. Ez zaitut aukeratu nire konstanteekin jolasteko.

**Doktorea**

Zertarako aukeratu nauzu, bada?

Gizonak mesfidati begiratzen dio.

**Gizona**

Good question.

Arbasoek ohiuka hasten dira.

**Arbasoak (off)**

Ez esan ezer oraindik!

Itxaron apur bat!

Ez da une egokia!

**Gizona**

Get out! Atera hemendik! Ospa! Zoaz!  
 Utzi nazazu! ¡Forget me! Atsedeen hartu  
 nahi duuuuuut! (...)

Doktorea urduri; gaixoaren ohiuak ez zaizkio komeni, froga  
 gaintituko badu.

**Doktorea**

Norekin ari zara?

**Gizona**

Ez dituzu entzuten? Nire arbasoak dira.  
 Tematiak, astunak. "Euskera gorde behar  
 duzu, euskera salbatu behar duzu, zure  
 esku dago..."

**Doktorea**

(Kezkatuta) Lasaitu zaitez.

Gizona bere pentsamenduetan sartuta dago.

**Gizona**

Revolution! Revolution madarikatu hura  
 inposatu izan balitz!

**Doktorea**

Zertaz ari zara?

**Gizona**

Frantziako Revolution! Kasu egin behar  
 genien!

**Doktorea**

Ez dizut ulertzen.

**1. LEHENENGO FABULA. "ARRAZOINAREN AMETSA"****Gizona Off**

Istorioko kontakutako dizut, fabula bat.  
 XVIII. mendearen bukaera. Frantziako  
 iraultza gorian dago. Ideia berriek  
 ankaz gora jarriko dute mundua. Bukatu  
 dira old regimena garai ilunak, eta  
 aro berri bat dator, plent of justice  
 eta liberty.

*Jakobindar hiritar bat agertzen da hirugarren planoan.*

**Hiritarra**

*...liberté, egelité, fraternité. Dans le  
 pays d'un peuple libre, la langue doit  
 être la même pour tous. [...] La*

*ignorance parle breton, la superstition  
parle gascoine, la misère parle basque.*

*Lehen planoan, laborari bikote bat, senar emaztea,  
apaltasunez datoz entzuer.*

***Ama lapurtarra***

*Zer dio?*

***Aita lapurtarra***

*Ez dugula eskuaraz egin behar. Ez omen  
da ona.*

***Ama lapurtarra***

*Zergatik?*

***Aita lapurtarra***

*Obscurantisme-aren lengoaia delako.*

***Ama lapurtarra***

*Zer da obscurantisme-a?*

***Aita lapurtarra***

*Prantsesegaz egiten badugu, libreak izanen  
garela. Ez garela eskalbuak izanen.  
Eztala gurean berriro goserik egonen.*

***Ama Lapurtarra***

*Egia ote da hori?*

***Aita Lapurtarra***

*Gizon jakituna da.*

***Ama Lapurtarra***

*Prantsesegaz ikasi behar genuke, ba!*

***Aita lapurtarra***

*Nola?*

***Ama lapurtarra***

*Zoazi heiekin! Zoaz, hirirat, eta  
ikasi.*

***Aita lapurtarra***

*Eta zuek?*

***Ama lapurtarra***

*Zure aiduru egonen gara. Eta zatozenez,  
ikasi eta hiritarrak izanen gara guhaur  
ere.*

***Aita lapurtarra***

*Baliteke denbora anitz iragatea.*



**Ama lapurtarra**

Aiduru egonen gara! Zoazi!

**Aita lapurtarra**

Ongi da. Agur, Anderea.

**Ama lapurtarra**

Agur!

Aita joatera doanean.

**Ama lapurtarra**

Gizona!

Aita gelditzen da.

**Ama lapurtarra**

Laister gaua izanen da eta artaldea soroan da.

**Aita lapurtarra**

Biltzen lagunduko zaitut.

**Ama lapurtarra**

Eta gero zoazi.

**Aita lapurtarra**

Bai. (...) Behia erditzekotan dago. Hobe gauean geratzen banaiz, zuk bakarrik ez duzu ateratzen ahalko.

**Ama lapurtarra**

Gera zaitez ba gauez. Baina goiztirian, abiatu.

**Aita lapurtarra**

Bai. (...) Laster hilbeltza dator. Arbolak inaustu beharko ditugu.

**Ama lapurtarra**

Eta soroak altzatu.

**Aita lapurtarra**

Eta teilatua arrimatu.

**Hiritarra (off)**

Jusqu'à ce que le dernier paysan n'oublie pas son langage d'ignorance nous ne pouvons pas nous débarrasser de la poussière de la misère.

Isilune luze bat.

**Ama Lapurtarra**

*Goazen etxerat. Berandu da, eta lan handia dago.*

***Aita lapurtarra***

*Goazen, bai.*

*Kantatzen dute.*

***KANTA***

*Oi laborari gaixua!  
hihaurrek jaten arthua,  
ogi eta ardu geñhatzen  
auherren asetzekua:  
halere hain haie maite  
nula artzeinek otsua.*

**3. HEMEN ETA ORAIN**

**Doktorea**

Kanta hori...

**Gizona**

What?

**Doktorea**

Beste kanta bat ekarri dit gogora. Nire aitak kantatzen zidana.

**Gizona**

Ze kanta?

**Doktorea**

Ez naiz gogoratzen. Oso txikia nintzen. Aspaldian...

**Gizona**

Zer iruditu zaizu errepublikano horren speech-a?

**Doktorea**

Zentzuzkoa. Hizkuntza bakarrarekin hobeto bizi gara denok.

**Gizona**

Of course! Ba esaiozu euskaldunei!

**Doktorea**

Laborari horiek ez zuten frantsesa ikasi?

**Gizona**

No way! Ez haiek, ez hain semealabak, ez haien semealaben semealabak ere. Errepublika osoan frantsesa gailendu zen. Han kostata. Historian zehar euskera mila bider egon da desagertzeko zorian, eta hala ere, iraun egin du, iraun...! Iraun...!

**Doktorea**

Meritua badu ere. Euskaldunen jarrerari buruz zerbait esaten du hainbeste iraute...

**Gizona**

Bah! Casuality hutsa!

Une hartan Asistantoa sartzen da, garbitzera.

**Asistantoa**

Pardonu.

**Doktorea**

Inter. (Gizonari) Kasualidadea?

**Gizona**

Hizkuntzak izaki bizidunak dira. Nola sortu zen bizitza?

**Doktorea**

Karbono, oxigeno eta nitrogernoen molekula bana elkartu zirelako...

**Gizona**

...kasualidadez...

**Doktorea**

Ez! Une hartan temperatura, eta presio egoera egokiak zeudelako... Kasualidadez, bai.

Asistantoak gaixoa txukuntzen du. Gero badoa.

**Asistantoa**

Bonan tagon.

**Gizona**

Agur, laztana!

**Asistantoa**

Pardonu. Kiu?

Asistantoa deskolokatuta dago.

**Gizona**

Agur.

Doktoreak begiratzen dio. Asistantoa konturatzen da, eta badoa.

**Asistantoa**

Pardonu.

Asistantoa badoa, gizonari jakinguraz begiratzen.

Doktoreak irriz begiratzen dio Gizonari.

**Gizona**

What?

**Doktorea**

Ezer ez. Exzentrikoa zara, zinez.

**Gizona**

Zergatik? Atsegina izan naizelako berarekin? Txarto iruditzen zaizu?

**Doktorea**

Ez, baina bitxia da. Asistente bat da eta... Nola esaten da euskeraz?, ez dut aurkitzen...

**Gizona**

Asistente? Paria... Ikutuezina... Esklabo...

**Doktorea**

(Minduta) Ez dakit benetan ala txantxetan ari zaren, baina...

**Gizona**

Zirikatzeko gogoia, besterik gabe. Norbaitek egin behar ditu inork egin nahi ez dituen lanak. Sorry. Ni bezain petralak dira zure paziente guztiak?

**Doktora**

Ez dakit. Zu zara nire lehenengo heriotza. Frogan nago.

**Gizona**

What? Frogan? Hau froga bat da? Zure lehenengo heriotza... ni naiz? Zure etorkizuna excentric baten eskuetan?

Gizonak kanporantz egiten du hitz, ikusten edo entzuten ari den norbaiti hitz egingo balu bezela.

**Gizona**

Ey, you, putakumeak! Nola egin diozue hau, kabroiak???

**Doktorea**

Mesedez, lasaitu!

**Gizona**

(Kanporuntz) Ikusten ze aholku onak? "Lasaitu!" Wonderfull, isn't it? Froga gairidituta, ezta? Jarri bikaina cum laude.

Doktorea lotsatuta dago.

**Doktorea**

Mesedez... Lasai.

**Gizona**

Lasai zu ere. Nik lagunduko zaitut. Ondo hiltzen saiatuko naiz, heriotz perfektu bat eskeiniko dizut. (...) Eta? Gustoko duzu ofizio hau?

**Doktorea**

Bai. Nire familian medikuak egon dira beti. Nire aitak ospitale honetan bertan lan egiten zuen.

**Gizona**

Eta zuk medikua izan nahi duzu, zure fatty bezalakoa izateko? Great!!!

**Doktorea**

(Deskonzertaturik) Ez, nik...

**Gizona**

Familia! Tradizioa! Fuck!

#### 4. BIGARREN FABULA. "ARBASOEN HIZKUNTZ ZAHARRA"

Eskenatokian XXVIII. mendeko gizon bat sartzen da, ume jaioberri bat besoetan duela. Umea goitik behera estalita dago, kanpangona luzeaz eta mantelinaz, festa berezi baterako jantzita.

**Gizona**

Nik ere familia euki nuen. Look. Hori nire fatty da.

**Doktorea**

Eta umea, zu? (...)

**Gizona**

Bai. Jaio berri berria!

**Doktorea**

Ze potxoloa!

**Gizona**

Ez nauzu ikusten eta!

**Doktorea**

Ume guztiak dira potxoloak.

Gizon zahar bat sartzen da liburu batekin.

**Gizona**

Sasikume ganorabako hori nire biraitona da.

**Doktorea**

(...) Zer da liburu hori?

**Gizona**

Kantutegi nazkagarri bat. Nire familian belaunaldiz belaunaldi pasatzen da. The symbol of transmission.

**Birraitona**

(Umeari) Ni hao! Zure birraitona naiz, xiao nan hai. Zure aitaren amaren aita.

Andre zahar bat agertzen da.

**Gizona**

Hori nire grandmother da! Hey, Granny, sorgin zahar zoro hori!

**Amona**

Zure granny naiz, iloba, zure father-en motherra.

**Birraitona**

Entzuten ari zaren hizkuntza hau euskera da, xiǎo zhāměng nan hai.

**Amona**

Gure familiako hizkuntza, my dear.

**Birraitona**

Hizkuntza guztiak desagertzen ari dira, handiak eta txikiak. Ni gazte nintzela, txinera zen hizkuntza nagusia munduan.

**Amona**

Nire garaian, inglesa zen the global language, baina familia honek aurre egin zion to that domination, euskera gorde genuen, working hard every day!

**Biraitona**

Inork ez zigun esan euskalduna izatea zein nekeza den, baina gure betebeharra bete dugu. Wǒ shì nǐ!

**Amona**

Pairatu genuen hungry, misery, incomprehension, loneliness...

**Biraitona**

Odolezko izerdia ixuri dugu.

**Amona**

Nekeza izan da!

**Biraitona**

Gogorra! Baina lortu dugu. Eta zuk ere lortuko duzu.

**Amona**

Gure hizkuntzaren etorkizuna zugan dago.

**Birraitona**

Xiao nangai, ni jaio nintzen egunean, amak liburu hau eskeini eta euskal kanta bat kantatu zidan. Nire alaba jaio zenean, zure amona, nik kantatu nion berari.

**amona**

Zure fatty jaio zenean, nik kantatu nion euskeraz, eta gaur berak zuri liburua eskeini eta kantatuko dizu.

Besteak zai.

**Amama**

What's the matter?

**Birbiraitona**

Eskeiniozu liburua, eta kantatuiozu!

**Aita**

Ez dakit zer egin!

**Gizona**

Nik badakit zer egin behar zenuen!

**Amama**

Baina semetxo, what are yoy saying?

**Aita**

Ez diot putada hau egin nahi! Munduan badaude gauza eder asko!! Ez! Kitto! Ez diot euskeraz kantatuko!

Arbasoak harrituta.

**Amama**

Urduri zaude, take it easy, pasako zaizu.

**Birbiraitona**

Kantaiozu!

Aita gero eta urduriago.

**Aita**

Ezetz esan dut! Euskaldun izatea latza da! Hizkuntza globalean egingo diot, mundu guztiak egiten duen bezela! Mi volas que li estu normala!

**Gizona**

Ondo esana!

Aitak liburua botatzen du.

**Birraitona eta amama**

Ahhhh!!!!

Bere arbasoek lurretik jaskoko dute, sakrilegio bat balitz bezela.

Umea negarrez hasten da.

**Gizona**

Negar horrekin izorratu nuen guztia!

Aita umea lasaitu nahiean hasten da.

**Aita**

Eh... Eh!! Ne ploru, filo! Ripozo, ripozo. Dormi, ne ploru.

Umeak gero eta negar negar ozenagoa egiten du. Aitak ez daki zer egin.

**Aita**

Eh!!! Eh!!!! Ne ploru! Dormi, dormi, filo! Eh... Eh!! Ripozo! Ne ploru, filo. Bonvolu, ne ploru. Dormi, dormi, filo...



*Umea ez da ixiltzen. Azkenean, sehaska kanta bat kantatzen hasten da.*

**Aita**

*Loa loa txuntxurunberde  
loa loa hěn hàipà,  
aita guria Hong Kong-en dago  
ama mandoan hartuta...*

**Todos**

*Aita guria Hong Kong-en dago  
ama mandoan hartuta...  
Loa loa txuntxurunberde  
loa loa hěn hàipà,*

**5. HEMEN ETA ORAIN**

**Gizona**

Nire erruagatik! Dena ondo zihoan, nire aita eusten ari zen, baina negarrez hasi nintzen! Fuck! Azken euskaldun bihurtu nintzen!

**Doktorea**

Eta hori hain larria da?

**Gizona**

Galdetuiezu nire barruko abotsei.

**Arbasoak (Off)**

Eh, nazkantea, kabroi alena, sasikume zikina!

Zer egin duzu gure languagekin?

Nolatan utzi duzu hiltzen?

**Gizona**

Ez didate bakerik ematen! (Bere barruko abotsari) Utzi bakean, get out!!

Gizona albo batean txokoratzen da, belarriak estaltzen, hunkituta.

**Doktorea**

Lasai. Azken euskalduna izatea ez da zure errua!

**Gizona**

Oh, yeah! Familia eduki nezakeen, baina ez izatea erabaki nuen.

**Doktorea**

Zergatik?

**Gizona**

Ez nielako azken euskalduna izatearen marroia pasatu nahi.

**Doktorea**

Ez zenien zertan euskaraz egin.

**Gizona**

Egingo nieke.

**Doktorea**

Zergatik?

**Gizona**

Hizkuntzak bizirauteko instintoa duelako. Survival instinct!

Misteriotsu, doktoreagana gero eta hurbilago.

**Gizona**

Hizkuntzak bizitzari eusten dio azken hatsa eman arte. Animalia basatia da hizkuntza.

**Doktorea**

Benetan?

**Gizona**

Basatia eta depredadorea. Hizkuntza txikiago bat topatzen badu, jata jan egingo du!!

Gizonak hozka egiten du aidean. Doktorea kikiltzen da.

**Gizona**

It's so simple.

**Doktorea**

Euskera ere?

**Gizona**

Zergatik izango zen different?

## 6. HIRUGARREN FABULA. "JATORRI ODOLTSUA"

**Gizona**

Look... Inork ez daki euskera nola eta non sortu zen. I use to imagine, aspaldi batean, geroago Akitania deituko zuten lurralde hartan, herri bat bizi zela,

historiak ahaztu duena. Demagun itxura  
hau zutela...

Istoriaurreko gerlari bat sartzen da.

**Gizona**

... eta hizkuntza zahar bat hitz egiten  
zutela, preindoeuropearra. Fino-  
hungariarra.

**Gerlari ezezaguna**

*Tämä on meidän maamme!*

**Gizona**

Egun goibel batean, beste leinu bat  
dator, auskalo nondik. Arma hobeak  
dituzte, gehiago dira, they are more  
agressive. Aborigen gaixoak, haienak  
egin du!

Bigarren gerlari bat agertzen da. Beste kultura batekoa  
dela nabari da.

Aurrez aurre kokatzen dira, elkarrengandik urrun xamar.  
Gizonak aldibereko itzulpena egiten du.

**Gerlari ezezaguna**

*(Mehatsukor) Tuntematon, kuuntele!*

**Gizona**

Ezezagun hori, entzuidazu!

**Gerlari ezezaguna**

*Tämä on meidän maamme!*

**Gizona**

Hau gure lurraldea da.

**Gerlari ezezaguna**

*Vanhempien vanhemmat antoivat meille.*

**Gizona**

Gure gurasoen gurasoek eman ziguten.

**Gerlari ezezaguna**

*Olemme aina eläneet täällä.*

**Gizona**

Hemen bizi izan gara beti.

**Gerlari ezezaguna**

*Ja annamme tämän maan lapsillemme.*

**Gizona**

*Eta guk gure semeen semeei emango diegu  
lur hau.*

***Gerlari ezezaguna***

*Niin päästä täältä, ulkomaiset  
tunkeilijat...*

***Gizona***

*Beraz alde hemendik, sarkin arrotzak...*

***Gerlari ezezaguna***

*...tai yritämme repiä päät...*

***Gizona***

*...bestela zuen buruak moztuko ditugu...*

***Gerlari ezezaguna***

*...a juoda veren, joka kulkee suonesi  
läpi.*

***Gizona***

*...eta zuen zainetako odola edango dugu.*

***Guerrero aquitano***

*Adi, hi, kixon belex! Auskiar senia ebil  
aurrez.*

***Gizona***

*Entzuidazu zuk, sasi gizona. Akitaniako  
herria da zure aurrean dagoena.*

***Doktorea***

*Horrek euskera ematen du!*

***Gizona***

*Lehenengo euskaldunen euskera arkaikoa  
da.*

***Gerlari akitaniarra***

*Lur han ebilen, gur kison, gur enbe, gur  
senbe et gur senben senbe.*

***Gizona***

*Lurrande honetan biziko dira gure  
gizonak, gure emakumeak, gure semeak eta  
gure semeen semeak.*

***Gerlari akitaniarra***

*Gur hezur ilhun lur hok edun.*

***Gizona***

*Lur honek gordeko ditu gure hezur  
ilunak.*

**Gerlari akitaniarra**

Gur gainko eki hiletargi gur dire.

**Gizona**

Gure gainean dagoen eguzkia eta hilargia gureak dira.

**Gerlari akitaniarra**

Arrotz, ebil!!!

**Gizona**

Atzerritarra, zoaz hemendik.

**Gerlari ezezaguna**

Jätä tänne, jos et halua kuolla!

**Gizona**

Zoaz zu, ez baduzu hil nahi.

**Gerlari akitaniarra**

Eze!

**Gizona**

Ez!

**Gerlari ezezaguna**

Aja veren!

**Gizona**

Egin dezagun borroka, beraz.

Gerlari ezezagunak mehatxu egiten dio.

**Gerlari akitaniarra**

Dodol isur!

**Gizona**

Odola isuri dadila!

Elkar talka egiten dute.

Borroka latza egiten dute.

Doktorea nahigabeturik dago.

Akitaniarrak errez menderatzen du. Gerlari ezezaguna lurrean dago, ahozpez, armagabeturik.

**Gerlari ezezaguna**

Luopua. Kertokaa minua ja minun.

**Gizona**

Errenditzen naiz. Izan erruki nirekin eta nitarrekin!

*Gerlari Akitaniarra gerturatzen zaio. Besteari lurretik altzatzen laguntzera doala ematen du. Baina heltzen denean, akatu egiten du bortizki.*

## 7. HEMEN ETA ORAIN

Doktorea zurbil dago, ikuskizun odoltsuak zeharo hunkituta. Goragaleaz.

**Gizona**

Are you OK? Zer duzu...

Doktoreak ezin du hitz egin ere egin.

**Doktorea**

Biolentzia hura...

**Gizona**

Irudimen zikina daukat. I'm sorry.

**Doktoreak**

Erregutuko nizuke gustu txarreko istorio gehiagorik ez kontatzeko.

**Gizona**

No problem. Ahaztua neukan gure mundu prefektu honetan ez zaudetela ohituta...

**Doktorea**

Ez dakit perfektua den, baina gutxienez horretan hobera egin dugu!

**Gizona**

Oh, yeah! Hobe gaude hizkuntza bakarrarekin.

**Doktorea**

Akitaniar horrek...! Bere ordaina jasotzea mereziko luke, begia begi truk.

**Gizona**

Jaso zuen ordaina! Kristo aurreko 56. urtean, erromatarrak heldu eta akabo euskara Akitanian. Begira...

## 8. LAUGARREN FABULA. JAIO BIZI ETAS HIL

**Gizona**

Garai hartako neskato akitaniar bat. Euskaraz daki, baina berak, kalean entzuten duena hitz egiten du.

Neska bat "ezkutaketara" jolasten. Hormaren kontra, begiak itxita, kontaketa egiten ari da.

**Neska**

Unus, duo, tres, quattor, quinque, sex, septem, octo, novem, decem. Ego veniam!

Aita hurbiltzen zaio. lagun batekin dator.

**Gizona**

Bere aitari ez zaio batere gustatzen.

**Aita**

Ez ekin latinez, nekato, akitanieraz ekin, arren!

**Neska**

Bai, ata. Bat biga hirur laur bortz sei zazpi zortzi bederatzi hamar. Banoa!

Neska badoa bere lagunen bila.

Aitak bere ondoan dagoen lagunari.

**Aita**

Ai, ai ai! Ez dakit zer egin alabarekin! Si ego neglexeris, latine locuti sunt.

**Laguna**

Hoc est terribilis! Terribilis!

Aita eta laguna badoaz.

**Gizona**

Baina historia ez zen orduan amaitu! IX menderako, frantsesa erabat errotua zegoen.

Ekintza bera errepikatzen da, baina hizkuntz aldaketa dago.

Neska, "hormaren kontra", begiak itxita, kontaketa egiten ari da.

**Neska**

Un deux trois quatre cinq six sept huit neuf dix. Je vais a chercher!

**Aita**

Puella, non potes loqui gallica! Latine loqui!

**Neska**

*Item, oh, pater. Unus, duo, tres, quattor, quinque, sex, septem, octo, novem, decem. Ego veniam!*

*Neska badoa bere lagunen bila.*

*Aitak bere ondoan dagoen lagunari.*

***Aita***

*(Lagunari) Ai ai ai! Quia nesciunt quid faciunt cum fillis! Dès que je suis confus, ils parlent en français!*

***Laguna***

*C'est horrible! Horrible!*

*Aita eta laguna badoaz.*

***Doktorea***

*Baina frantsesa ere desagertu zen, ez?*

***Gizona***

*Bai. XXIV mendean, ingelesa zen nagusi.*

*Neska, "hormaren kontra", begiak itxita, kontaketa egiten ari da.*

***Neska***

*One, two, three, four, five, six, seven, eight, nine, ten. I'm going!*

***Aita***

*Ma fille, ne parlez pas en anglais. Parler en français.*

***Neska***

*Oui, papa. Un deux trois quatre cinq six sept huit neuf dix. Je vais a chercher!*

*Neska badoa bere lagunen bila.*

*Aitak bere ondoan dagoen lagunari.*

***Aita***

*(Lagunari) Ai ai ai! Je ne sais pas quoi faire avec ma fille, as son as I'm careless, she speaks in English!*

***Laguna***

*I's terrible! Terrible!*

*Aita eta laguna badoaz.*

***Gizona***



XXVII mendean, txinera hedatu zen.

Neska, "hormaren kontra", begiak itxita, kontaketa egiten ari da.

**Neska**

Yī èr sān sì wǔ liù qī bā jiǔ yìsh. Whu yao!

**Aita**

Baby, don't speak in chinese. Speak in English, please!

**Neska**

Yes, fatty! One, two, three, four, five, six, seven, eight, nine, ten. I'm going!

Neska badoa bere lagunen bila.

Aitak bere ondoan dagoen lagunari.

**Aita**

(Lagunari) Ai ai ai! I don't know what to do with my daugther. Rúguǒ wǒ bù xiǎoxīn, shuō zhōngwén!

**Laguna**

Tai kepale! Kepale!

Aita eta laguna badoaz.

**Doktorea**

Eta XXIX mendean, hizkuntza globala inposatu zen mundu osoan.

**Gizona**

Hala da.

Neska, "hormaren kontra", begiak itxita, kontaketa egiten ari da.

**Neska**

Unu du tri kvar kvin ses sep ok naũ dek. Mi iras!

**Aita**

Bùyào yòng quányiú yǔyán! Yòng zhōngwén shuō.

**Neska**

Shì de, fùqīn. Yī èr sān sì wǔ liù qī bā jiǔ yìsh. Whu yao!

*Neska badoa bere lagunen bila.*

*Aitak bere ondoan dagoen lagunari.*

**Aita**

*(Lagunari) Ai ai ai! Wǒ bù zhīdào  
gāi zěnmē bàn. Se mi konfuziǎs, parolu  
en la tutmonda lingvo!*

**Laguna**

*Estas jaluzinant. Jaluzinant!*

*Aita eta laguna badoaz.*

**9. BOSKARREN FABULA "BABELGO DORREA"**

**Doktorea**

Ulertzen dut. Hizkuntza batek bestea kanporatzen du. Ez dago birentzako tokirik.

**Gizona**

Benoa... Kultura elebidunak bazeuden ere.

**Doktorea**

Ah, bai?

**Gizona**

Batzuetan eraman erreza zen, beste batzuetan zeharo konplikatua... Hara... egon zen behin, aspaldi batean, erresuma bat, lau hizkuntza desberdin zituena.

**Doktorea**

Lau hizkuntza desberdin?

**Gizona**

Really!

**Doktorea**

Ez dizut sinisten.

**Gizona**

Benetan. Kaotikoa zen, erabat, baina existitu zuen.

**Doktorea**

Ez da posible.

**Gizona**

Erakutsiko dizut. Fabula hau txiste baten moduan hasiko da. Badoaz espainol bat, euskaldun bat eta gailego bat...

Hiru pertsonai sartzen dira.

**Gizona**

Katalana falta da. Ni neu.

Gizona beste hirurekin batzen da.

**Gizona**

Hasi dadila akzioa. Babelgo dorrea!

**Esp**

Bueno...! "Torre de babel", "torre de babel"... no hay que exagerar. Podemos entendernos, con un poco de buena voluntad.

**Gai**

¿Que dixo? Non entendín ben.

**Kat**

Diu que no tenim voluntat d'entendre'ns els uns als altres.

**Gai**

¿Que non temos a vontade de comprender a os altos?

**Esp**

¡Yo comprendo lo mismo a los bajos y a los altos!

**Kat**

Os altos, no, els altres... Els al-tres.

**Gai**

Non somos tres. Somos catro.

**Eus**

Aizue, zelako eztabaida gordina, ez?

**Gai**

Uy!! Llamóte gordiña!

**Kat**

Una mica d'educacio, si us plau!

**Eus**

Eh???

**Esp**

Me has insultado, no lo puedes negar.

**Eus**

Nork egin du negar? Ni lasai nago, zuek ez bezala.

**Esp**

Bésala? ¿Ahora quieres que me de un beso?

**Eus**

Zer gertatzen da besoarekin?

**Gai**

Qué está diciendo isto?

**Eus**

Dena aldrebesten ari zarete, nire uste apalean.

**Esp**

¿Quién va a apalea a quien?

**Eus**

Onena denok isiltzea izango da, ondo pentsatzen jarrita.

**Gai**

Qué dixo?

**Esp**

No sé qué de una jarrita.

**Esp**

No sé que has dicho, pero por si acaso, tú mas.

**Eus**

Hau da marka, gurea! Belarri luzeak ditugu, baina entendimendu laburra.

**Gai**

Agora llamóle burra!!!

**Esp**

Te estás pasando.

**Eus**

Liskarra bila bazabiltza, nik ez dut nahi, eskerrik asko.

**Esp**

Ah, ¿te doy asco?

**Eus**

Benetan, ez dakit zer egin, negar edo barre.

**Gai**

Agora mandóle barrer!!!

**Kat**

¡Micromachista!

**Esp**

¿Me has llamado machista a mí?

**Kat**

¿Qué dius?

**Esp**

¡A Dios no le metas en esto, que no viene a cuento!

**Kat**

Eh?

**Gai**

Creo que dixo que tes moito conto.

**Esp**

¡¡Esto se nos está yendo de las manos!!

**Kat**

No cridis!!! Per que cridis?

**Esp**

¡Qué "cridis" ni que cridis! ¡Habla en cridistiano!

**Cat**

Una mica de tranquilitat, si us plau.

**Esp**

"Si us plau"? ¿Por qué hablais todos tan raro? ¿Por qué no habláis como yo, que me entiende todo el mundo? ¿Por qué nos enfadamos, si yo os quiero en lo más hondo?

**Eus**

Ondo? Ja, ondo! Hau ez dago ondo! Tontakeria gehiago esan baino lehen, konta ezazu hamar!

**Esp**

Amar! Primero me grita y luego me habla de amar. Qué morro tienes hijito.

**Eus**

Ijito ni? Ijito ni, ni???

**Esp**

¿Qué nini ni qué nini muerto?

**Eus**

Ijito deitu didazu, aitortu!

**Esp**

Aitor yo? Yo?

**Eus**

Jo? Jo? Nori joko diozu zuk? Ikutu nazazu pixka bat eta ordainduko duzu zorra.

**Gai**

Agora llamóle zorra!

**Kat**

Matxista!

**Esp**

Mira, me entra por un oído y me sale por el otro. ¡Me importa un higo!

**Eus**

Igo nora?

**Esp**

Nora? Qui es Nora?

**Eus**

Kitto, ez dut gehiago esango. Itxi ditut belarriak, begiak, eta ezpainak.

**Esp**

¿Qué?

**Eus**

Ezpainak!

**Esp**

¡Viva!

Espainola kantatzen hasten da.

**Esp**

Vuelvo a casa  
a mi amada tierra  
la que vio nacer  
mi corazón aquí...

Besteek bizkarra eman diote.

**Esp**

*¡Qué intolerantes!*

## 10. HEMEN ETA ORAIN

Doktorea barrez ari da

**Gizona**

Hey! Bukatu egin da!

Doktorea gizonaren aurrean dagoela ikusi eta isiltzen da.

**Doktorea**

Barkatu, ez dizut entzun...

**Gizona**

Gustoko duzu, beraz, kaos hori?

**Doktorea**

Ez! Inola ere ez!

**Gizona**

Ziur?

**Doktorea**

Jakina! (Irribarez) Beno... onartu behar dut zera izan dela... Dibertigarria... Intentsoa... Beroa.

**Gizona**

Bai. Gure konfliktorik gabeko gizarte hau ederra da, baina gatza eta piperra falta zaio, ez?

**Doktorea**

Nik ez dut hori esan.

**Gizona**

Baina sentitu, bai. It's normal, bizitza hau monotonoa egiten zaigu, koloregabea. Eta aurrekoa berriz, erakargarria. Identity bat izatea. "Gora gu eta gutarrak"...

**Doktorea**

Baina nik ez...

**Gizona**

Polita da, bai. But be carefull! Ez jausi lilura hartan! Espejismo bat da! Nahigabea dakar.

**Doktorea**

Nahigabea?

**Gizona**

Bai. Identity hori galtzen denean.

**Doktorea**

Ez dut ulertzen.

**Gizona**

Adibide bat jarriko dizut.

**11. SEIGARREN FABULA "EUSKALDUNEN INPERIO LABURRA"**

**Gizona**

XVI. mendea. Euskal marinela balea eta makailauaren arrantzan dabilta Amerikako iparrean, Ternuan. Lurralde haietako biztanleak, Mi´kmaq-ak, euskaraz ikasi zuten, euskaldunekin tratu komertzialak egiteko.

*Mi´kmaq leinuko gazte bat (mutila) sartzen da, euskal deklinabidea, indiar erara kantatuz eta dantzatuz.*

***Mi´kmaq gaztea 1***

*Ni naz... hi haz...*

*bera da... gu gare...*

*zu zare... haek dire...*

*Buruzagia sartzen da.*

***Buruzagia***

*Egun on.*

***Mi´kmaq gaztea 1***

*Egun on!*

***Buruzagia***

*Zer moduz?*

***Mi´kmaq gaztea 1***

*Apaizak hobeto!*

***Buruzagia***

*Eseri!*

***Mi´kmaq gaztea 1***

*Bai, andereño!*

***Buruagia***

*Andereño ez! Maisu!*

***Mi´kmaq gaztea 1***

*Ah!*



Mi´kmaq gaztea 1-ek musu ematen dio.

**Buruzagia**

Musu ez, maisu!

**Mi´kmaq gaztea 1**

Meisu?

**Buruzagia**

Maisu!

**Mi´kmaq gaztea 1**

Misu?

**Buruzagia**

Maisu!

**Mi´kmaq gaztea 1**

Misa?

**Buruzagia**

Andereño.

**Mi´kmaq gaztea 1**

Bai, andereño! (...) Ni naz... hi haz... bera da... gu...

Mi´kmaq leinuko beste gazte bat (neska) sartzen da.

**Buruzagia**

Egun on.

**Mi´kmaq gaztea 1**

Egun on, maisu!

**Buruzagia**

Zer moduz?

**Mi´kmaq gaztea 1**

Apaizak hobeto!

Mi´kmaq gazte 1 bere leloa errepikatzen hasten da.

**Mi´kmaq gaztea 1**

Ni naz... hi haz...

2-a beste aditz bat errepatzen du.

**Mi´kmaq gaztea 2**

Niri zeniezadake... hiri zeniezaake... honi zeniezaioke... guri zeniezaiguke...

Gazte biak elkarren arteko liskarrean hasten dira. <sup>1</sup>

**Mi´kmaq gaztea 1**

"Zeniezaiguke...?" Gogwei net? Mo´kwa mut basko! (Zeniezaiguke? Zer ha hori? Hori ez da euskera!)

**Mi´kmaq gaztea 2**

Na t´oq basko! G´il atak ginu, zeniezaiguke. (S´ı es euskera. Zuk niri: zeniezaiguke)

**Mi´kmaq gaztea 1**

Gisite´lmatl nige! (Hori asmatu egin duzu!)

**Buruzagia**

Baskoa hitz egin!

**Mi´kmaq gaztea 1**

Gogwei ugjit gegnu´tmasit baskoa? (Zergatik egin behar dugu euskeraz?)

**Buruzagia**

Baskoan!

**Mi´kmaq gaztea 1**

Zergatik guk baskoan egin?

**Buruzagia**

Baskoan hitz egiten, gizon zuriekin merkatu eta aberastu. Mi´kmaq-eraz egiten badugu, gu beti pobreak. Ulertzen?

**Mi´kmaq gaztea 2**

Bai.

**Mi´kmaq gaztea 1**

Ez!

**Buruzagia**

Ginu baskoa ewle´juinu, alanguat lapugwan ji´nuit gina suliewei. Mi´kmaq gelusit, gewising. (Baskoan hitz egiten, gizon zuriekin merkatu eta aberastu. Mi´kmaq-eraz egiten badugu, gu beti pobreak.)

**Mi´kmaq gaztea 2**

Ba zu orain Mi´kmaq-eraz ari!

<sup>1</sup> Mi´kmaqerazko dialogo labur hauek itzulpenik gabe erakusten dira eskenan. Kontestuagatik ulertzen dira. Irakurrita zailagoa da ulertzea, beraz, parentesi artean gutxihorabeherako esanahia doa)

**Buruzagia**

Eh?

**Mi`kmaq gaztea 1**

Bai! Zuk Mi`kmaqeraz! Ja, ja... Zu beti pobrea!

**Mi`kmaq gaztea 2**

Ja ja... Buruzagia beti izango da pobrea!

**Buruxagia**

Ni ez izango pobrea! Ni baskoan egiten!

**Mi`kmaq gaztea 1**

Eh? Ez ulertu!

**Buruzagia**

Baskoa gelusit nige!

**Mi`kmaq gaztea 2**

Zu mi`kmaq-az berriro! Zu pobrea!

**Mi`mmaq gaztea 1**

Ja! Mi`kmaq gelusit nige. Ji`nm gewising me`gaw. (Ja! Mi`kmaqeraz ari da, beti izango da pobrea!)

**Mi`kmaq gaztea 2**

Gelusit nige! Ja! Gewising mick-maq me`gaw! (Eta zuk ere, mi`kmaq pobrea izango zara beti!)

**Mi`kmaq gaztea 1**

Mi`kmaq telimat! (Mi`kmaq deitu dit!)

**Buruzagia**

Baskoan!

**Mi`kmaq gaztea 1**

Mi`kmaq deitu dit!

**Mi`kmaq Gaztea 2**

Bai! Mi`kmaq pobrea zara zu.

**Mi`kmaq Gaztea 1**

Ni ez Mi`kmaq, ni baskoa.

**Mi`kmaq Gaztea 2**

Mi`kmaq!

**Mi`kmaq gaztea 1**

Zu Mi`kmaq! Mi`kmaq gewising! (Mi`kmaq pobrea!)

**Mi´kmaq Gaztea 2**

Ni ez Mi´kmaq. Ni baskua!

**Mi´kmaq Gaztea 1**

Mi´kmaq pobrea!

**Mi´kmaq Gaztea 2**

Ni baskua. Na tok, Mi´kmaq! (Ez naiz Mi´kmaq) (Buruzagiari) Maisu, Mi´kmaq deitu dit!

**Mi´kmaq gaztea 1**

Ja! Mi´kmaq gewising!!! (Bai, mi´kmaq pobrea!)

**Mi´kmaq Gaztea 2**

Maisu, gu zer, baskoa edo Mi-kmaq?

**Buruzagia**

Gu baskoa mingainean, baina bihotzean Mi-kmaq!

Laugarren herritar bat sartzen da.

**Mi´kmaq 4**

Egun on!

**Buruzagia, Mi´kmaq Gaztea 1 eta 2**

Egun on!

**Mi´kmaq 4**

Zer moduz?

**Buruzagia, Mi´kmaq Gaztea 1 eta 2**

Apaizak hobeto!

**Mi´kmaq 4**

Zurria kesonak etorri!

**Buruzagia**

Baskoak gehiago?

**Mi´kmaq 4**

Ez baskoa! Prantsese!

**Buruzagia**

Prantsese? Eta baskoak non...?

**Mi´kmaq 4**

Baskoak joan!

**Buruzagia**

Joan?

**Mi´kmaq 4**

Prantsesek espadak atera eta esan:  
"Tirez vous de la!"

**Buruzagia**

Eh?

**Mi´kmaq 4**

Esan nahi: Alde hemetik!

**Buruzagia, Mi´kmaq Gaztea 1 eta 2**  
Ohhh!

**Mi´kmaq 4**

Eta baskoak listoak... eta joan. Orain prantsese egon hemen. Handiak kisonak. Arma asko kisonak. Urre asko, kisonak.

**Buruzagia**

Entzun! Guk baskoa ez berba. Guk berba prantsese, eta gosea urrundu... Baskoa ahaztu, ez balio ezertarako!

**Mi´kmaq gaztea 2**

Ba zu orain baskoa berba!

**Buruzagia**

Eh?

**Mi´kmaq gaztea 1**

Bai.

**Mi´kmaq 4**

Bai, maisu, zuk berba baskoa egin.

**Buruzagia**

Eta zu!

**Mi´kmaq gaztea 1 eta 2**

Ja, ja, ja!! Haiek baskoak!! Haiek pobreak!

**Buruzagia**

Ixildu! Prantsese aprendi.

**Mi´kmaq gaztea 2**

Baina maisu... Gu zer? Basko mingainean? Mi´kmaq bihotzean? Prantsese?

**Buruzagia**

Gu herri txiki eta pobre. Gu... hortzak esutu eta aurrera.

Aditza erreparatzen dute, kantuan eta dantzan.

**Lurak**  
*Je suis, tu es,  
 il est, nous sommes,  
 vous êtes, ils sont.*

*Off-eko abotsa entzuten da.*

**Mi´kmaq 5**  
*Egunon!*

**Lurak**  
*Egun on!*

**Mi´kmaq 5**  
*Zer moduz?*

**Lurak**  
*Apaizak hobeto!*

**Mi´kmaq 5**  
*Geiago zuriak kisonak etorri!*

**Lurak**  
*Baskoa?*

**Mi´kmaq 5 (off)**  
*Ez!*

**Lurak**  
*Prantsese?*

**Mi´kmaq 5 (off)**  
*Ez! Ingelese! Ingelese etorri!*

*Lau Mi´kmaq-ak elkarri begira. Azkenean, denak batera:*

**Lurak**  
*I am, you are,  
 he is, she is,  
 it is, we are,  
 you are, they are.*

## 12. HEMEN ETA ORAIN

Doktorea fabulatik ateratzen da, eta gizonari begira geratzen da.

Gizona dantzau dauden Mi´kmaq-ei begira dago, tristuraz.

**Gizona**  
 Mi´kmaq errukariak! Gora zuek, gora zuek  
 betiko!

(...)

**Gizona**

Horra denok berdinak izatearen abantaila: ez dugu identitatea galtzeko arriskurik! Min bat gutxiago.

**Doktorea**

Euskara hizkuntza koloniala izan zen, benetan?

**Gizona**

Denbora gutxian, baina bai.

**Doktorea**

Hizkuntza txikia zela uste nuen.

**Gizona**

Zerekin konparatzen duzun. Mi´kmaq horien ondoan gigantea zen. Europako bere txokoan, berriz, txikia.

**Doktorea**

Gulliver!

**Gizona**

Oh, yeah!

**Doktorea**

Beraz, euskerak Mi´kmaq horien zoria izan zuen askotan...

**Gizona**

Nire familian kontu asko kontatzen ziren, euskerari egindako erasoei buruz. Persecution, prohibition... Eta mingarrietakoa: indifference.

### 13.ZAZPIGARREN FABULA "SANTEMILIANEKO GLOSAK"

**Gizona**

Hamargarren mendean, San Millan de la Cogolla-ko monastegian, fraile batek gastelaniazko lehen hitzak idatzi zituen. Mila urte geroago, 2.000 urtean, Espainia izeneko Erresuma, gertaera horren ospakizuna egitera doa.

*El Representante de la Casa Real y un regidor con una tablilla en la mano, esperan. Entra un actor vestido de monje, con una réplica del Códice Emilianense en la mano.*

*El Representante de la Casa Real le escruta con la mirada.*

**Representante Casa Real**

¿Eres el actor que va a hacer de monje?

**Actor**

No, soy el monje, he viajado desde el X para asistir al evento.

**Representante de la casa real**

No hay tiempo para bromas. La ceremonia empezará en media hora.

**Regidor**

19:00 El presidente de la Comunidad presenta el acto. 19:05 Coro Sinfónico de la Rioja. 19:20 Palabras del Abad del Monasterio. 19:35 Discurso de Su Majestad. Cuando acabe su discurso...

**Representante de la casa real**

Léele el final, para que sepa su pie...

El regidor busca en su tablilla el discurso del rey.

**Regidor**

(Imitando al rey) "Lo importante es que, por primera vez..."

**Representante de la casa real**

¡No hace falta que le imites...!

**Regidor**

Me sale sin querer, también soy actor...

**Actor**

¿Tú también? ¿Y en qué bar sirves copas?

Se ríen los dos.

**Regidor**

(Imitando al rey) "Lo importante es que, por primera vez, un español ha escrito las mismas palabras que utilizan sus convecinos labriegos. Así, vacilante y tímida, nació nuestra lengua. La que nos enorgullece, nos vertebró y nos une como nación." Fin. Luego, tres minutos de aplausos.

**Actor**

Les van a salir callos en las palmas.

**Regidor**

Están acostumbrados, son políticos.



Ríen los dos.

**Representante Casa Real**

Después, el Ministro de cultura te da paso.

**Regidor**

Dice: "Escuchemos pues, de boca del monje escriba, aquellas primeras palabras en español".

**Actor**

¿Y salgo yo?

**Representante de la Casa Real**

¡No! ¡La señora de la limpieza!

**Actor**

Vale, vale...

El actor sube al estrado.

**Actor**

"Buenas tardes". "Arratsaldeon".

**Representante de la Casa Real**

¿Qué dices?

**Actor**

Arratsaldeon, buenas tardes en euskera. He pensado que el monje podría saludar en los dos idiomas.

**Representante de la Casa Real**

¿Por qué?

**Actor**

Porque como algunas de las frases que escribió el monje están en euskera...

**Doktorea**

Benetan?

**Regidor**

¿Ah, sí? (Al Representante) ¿Es cierto?

**Representante de la Casa Real**

Sí, algo he oído.

**Actor**

Sería un gesto de buen rollo entre lenguas del estado.

**Representante de la Casa Real**

*Faltan dos horas, no hay tiempo...*

**Regidor**

*¿Cuánto lleva usted en la Casa Real?*

**Representante de la Casa Real**

*Va para diez años.*

**Regidor**

*Y sigue de segundón. ¿Por qué? Falta de iniciativa.*

**Representante de la Casa Real**

*Ya... Puede ser un bonito detalle. Se lo voy a comentar al Jefe de la Casa Real.*

*El Representante de la Casa Real saca su móvil y sale de escena.*

**Regidor**

*Oye, ¿y cómo sabes tú tanto de eso?*

**Actor**

*He preparado a fondo el personaje. Resulta que en este códice, coinciden las primeras palabras escritas en español, con las primeras palabras escritas en euskera.*

**Doktorea**

*Hori posiblea al da?*

**Regidor**

*¡Qué casualidad tan curiosa!*

**Actor**

*Pues sí, qué casualidad. (Doktoreari)  
Eta bai, posiblea da.*

*Entra el Representante de la Casa Real, por teléfono.*

**Representante de la Casa Real**

*Sí, lo entiendo... Sí, sí... Gracias, gracias. (Cuelga) Dices "Buenas tardes" y punto.*

**Actor**

*Pero...*

**Representante de la Casa Real**

*Que estamos en la Comunidad Autónoma de la Rioja y puede sentar mal.*

**Regidor**

No se hable más.

**Actor**

¿Y si es el propio Rey el que hace una mención en su discurso? Ya sabe: "...dos lenguas del estado, a veces tan distantes en lo político, pero en el fondo, hermanadas con una historia común" y esas cosas.

**Regidor**

Eso estaría bien, ahora que las aguas bajan tan revueltas...

**Representante de la Casa Real**

(Pensativo) Sí. Tender puentes... Lo cierto es que la Casa Real anda buscando la manera de mejorar la imagen del Rey en algunas Comunidades...

**Regidor**

La ocasión la pintan calva.

**Representante de la Casa Real**

En dos horas hay tiempo de retocar el discurso. Le llamo.

**Regidor**

¡Tiene usted el acenso en el bolsillo!

El Representante de la Casa Real saca su móvil y sale de escena.

**Regidor**

Oye, ¿y por qué le dio a ese fraile por escribir en euskera?

**Actor**

Porque en aquel tiempo aquí se hablaba también euskera. El monje sería vascoparlante, como muchos de los habitantes del valle.

**Regidor**

Mira tú... Qué poco sabemos de nuestro propio país.

Vuelve a entrar el regidor.

**Representante de la Casa Real**

Sí, sí... Lo entiendo. Y disculpe por molestarle de nuevo. (Cuelga) El discurso queda como está.

**Regidor**

¿Le ha explicado lo de los puentes...?

**Actor**

¿Lo del gesto de acercamiento a ciertas comunidades?

**Representante de la Casa Real**

Un gesto de acercamiento a ciertas comunidades supone el alejamiento de otras comunidades. Así que lee la maldita glosa del monje.

**Actor**

(Lee) "Cono aiutorio de nuestro dueño dueño Christo dueño Salvatore qual dueño gel ena honore e qual duenno üenet ela mandatione cono Paire cono Spiritu Sánelo enos sieculos délo sieculos. Pacanos Deus Omnipotes tal serbitio fere ke denante ela sua face gaudioso segamus. Amen."

**Regidor**

¡No he entendido nada!

**Representante de la Casa Real**

Te bajas y entra de nuevo el coro... Aplausos, y todos para casa.

**Actor**

¿Y no podría yo leer, aunque sea, alguna de las glosas que el monje escribió en euskera? Por ejemplo, "Guk aiutu ez dugu" o "Izioqui dugu".

**Doktorea**

Baina hau euskara da?

**Gizona**

Bai, erdiarokoa.

**Representante de la Casa Real**

¡Eres muy pesado!

**Actor**

No sería algo político. Simplemente, un dato filológico y objetivo.

**Regidor**

Y a la vez, un sutil gesto de concordia.

**Actor**

Contentará a los unos, y los otros no podrán enfadarse. Quid pro quo.

**Representante de la Casa Real**

Ya me han dicho no dos veces...

**Regidor**

Si se rinde a la segunda, más le vale cambiar de oficio. La política es de los audaces.

**Representante de la Casa Real**

(Pensativo) Sí... Podría estar bien... Además, sólo es un dato filológico.

El Representante de la Casa Real sale marcando su móvil.

**Regidor**

¿Y qué significan esa frases?

**Actor**

Nadie lo sabe con seguridad.

**Regidor**

¿Ah, no?

**Actor**

El euskera ha variado mucho desde entonces.

**Regidor**

Como el castellano.

**Actor**

Sí.

Entra el Representante de la Casa Real.

**Representante de la Casa Real**

¡Le ruego que me disculpe! ¡Sí, sí, lo entiendo! Y le ruego transmita mis disculpas a... (...) ¿Oiga? ¿Oiga? (Cuelga. Habla muy enfadado) ¡¡¡Se queda todo con está!!!

**Actor**

¿Pero por qué?

**Representante de la Casa Real**

Porque celebramos el milenario de la Lengua Castellana. 572 millones de hablantes, la segunda lengua más hablada del mundo. No vamos a compartir este

minuto de gloria con ninguna otra lengua. Faltaría más.

**Actor**

Pues yo me voy.

**Representante de la Casa Real**

¿Eres un vasco abertzale?

**Actor**

Ni siquiera soy vasco. Soy de Móstoles.

El actor se quita el hábito de monje (o lo que lleve para caracterizarlo)

**Regidor**

¡Coño, yo de Alcorcón!

**Representante de la Casa Real**

¿Y qué tripa se te ha roto a ti con el dichoso vasco?

El propio actor está sorprendido por su actitud.

**Actor**

No lo sé, soy actor de método, me meto en el personaje. Hasta he aprendido euskera...

**Representante de la Casa Real**

Pues se te ha pegado el aldeanismo.

**Actor**

¿Quiere decir que antes, cuando sólo hablaba un idioma, era un ciudadano moderno, y ahora que hablo dos, soy un aldeano atrasado? Curioso razonamiento.

El Monje sale.

#### 14. HEMEN ETA ORAIN

Doktorea eskenan satzen da.

**Doktorea**

Ondo esana, horixe baietz!

**Representante de la Casa Real**

¿Y esta quién es?

Doktorea Representanteagana doa.

**Doktorea**

Eta zu...! Ze arraio zabiltza?

**Representante de la Casa Real**  
 ¿Pero quién es esta loca?

**Doktorea**  
 Hizkuntza txikiagoa da, baina errespetua merezi du!

Representantea izututa dago.

**Representante**  
 ¡Seguridad! ¡Seguridad!

Gizona sartzen da, Doktorea fabulatik ateratzera.

**Doktorea**  
 Europako hizkuntzarik zaharrena da!  
 Milaka urtez iraun du bizirik. Mirari linguistiko bat da!!

**Gizona**  
 (Doktoreari) It's enough! Come on.

**Representante**  
 ¿Y usted? ¿Quién demonios es usted? ¿Qué está pasando aquí?

**Gizona**  
 Lasai, ez da ezer!

**Representante**  
 ¡Seguridad!

Representanteak alde egiten du.

**Doktorea**  
 Zoaz, zoaz zure erregearengana negar egitera!! Zoaz... Txupatintas!!!

Doktorea ingurura begiratu, eta Gizonarekin dagoela konturatu da. Apur bat nahastuta dago.

**Doktorea**  
 (...) ¿Non...?

**Gizona**  
 Fabula bukatu da.

**Doktorea**  
 Ah...

Doktoreak bere arropa eta ilea konpontzen du.

**Gizona**  
 Incredible!

**Doktorea**

Zer?

**Gizona**

Nola sartzen zaren istorioetan! Entzule perfektoa zara.

**Doktorea**

Hunkibera naiz.

**Gizona**

Really?

**Doktorea**

Empatia gehiegi.

**Gizona**

Zure aitak kanta hura kantatzen zizunean bezela.

**Doktorea**

Bai, izan liteke.

**Gizona**

Ok. Fabula gehiago ez, beraz, badaezpada ere.

**Doktorea**

Bai. Hobeto.

**Gizona**

Nire amonak ere istorio asko kontatzen zizkidan.

**Doktorea**

Aha...

**Gizona**

Nire aita gazterik hil zen eta euskera nire Grannygandik jaso nuen nik.

**Doktorea**

Aha...

**Gizona**

Bazegoen istorio bat biziki gustatzen zitzaiona.

**Doktorea**

Aha...

**Gizona**

Erromatarrei buruzkoa.



Espazioan pertsonaiak agertzen dira: Zenturioia eta Legionarioa.

**Doktorea**

Aha...

**Gizona**

Beno... erromatarrak... Legionarioa baskoia zen. Baina garai hartan baskoi asko zeuden Erromako legioan.

Pertsonaiak Gizonari begira geratzen dira, fabula noiz hasiko.

**Doktorea**

Aha...

**Gizona**

Kontatuko nizuke, baina...

**Doktorea**

Baina zer?

**Gizona**

Fabula gehiago ez.

**Doktorea**

Ah!

**Gizona**

Badaezpada. Ez zaitut onetik atera nahi.

**Doktorea**

Bai. Badaezpada.

Pertsonaiak irteten hasten dira.

Irteteko puntuan daudenean, Doktorea, jakinminez.

**Doktorea**

Beno, kontatuko didazu bai ala ez!

**Gizona**

Baina...

**Doktorea**

(Kontroleraz kanpo) Hasi behingoz fabula aluarekin!

Gizona harrituta geratzen da. Pertsonaiak ere.

**Gizona**

(Irriz) Ondo da, ondo da.

## 15. ZORTZIGARREN FABULA "BENETAKO LINGUA BASCONUM PRIMITIAE"

**Gizona**

Kristo ondorengo 69. urtea. II. Cohors Vasconum Civium Romanorum-en kanpalekua, Novesion. Germanian. Vocula zenturioia bere dendan dago. Legionarioa sartzen da.

Eszenarioan, Zenturioi bat, zai. Legionarioa dator barrura.

**Legionarioa** <sup>2</sup>

Éccum! Cáius Iúlius Beltesónis, legionárius míles secúndae cohórtis prímae centúriae...! (Caio Julio Beltesonis, legioko soldadua, bigarren kohorteko bosgarren zenturia...!)

**Zenturioia**

Sat est. Éstne hoc túum, míles? (Onda da, soldadu. Hau zurea al da?)

Idazki bat erakusten dio.

**Legionarioa**

Méum est, dómne. (Bai, jauna.)

**Zenturioia**

(Irakurtzeko zailtasunak) "Ni, Beltesonis, Umezaharren senbe." Scín tu lítteras per nótas scríbere póenas cápite expéndere? ("Ni, Beltesonis, Umezaharren senbe." Ba al dakizu mezuak klabean idazten dituenari heriotza-zigorra dagokiola?)

**Legionarioa**

Scío. Sed háe non sunt lítterae per nótas scriptae. (Bai, zenturioia. Baina ez da klabean idatzitako mezua.)

**Zenturioia**

Scío, míles, et crédo tíbi; et tu scís me dilígere, sed míhi ratiónem reddéndum est superiórius. (Sinesten dizut, soldadu, badakizu estimuan zaitudala, baina nagusiei azalpenak eman behar dizkiet.)

**Legionarioa**

<sup>2</sup> Fabula honen berezko hizkuntza latina da. Eskenatokian, latinez hasi eta ulermena errazteko, euskerara pasatzen dira geroxeago. Testuan, jatorrizko bertsiua eskeintzen dugu.

Significant "Ego, Beltesónis, Umézaris filius..." (Zera esan nahi du: "Ni, Beltesonis, Umezarren seme...")

**Zenturioia**

Et quid? (Eta?)

**Legionarioia**

Príma vocábula sunt tántum. Germanórum bélla scriptúrus sum. Lingae Vasconum Primitiae! (Lehendabiziko hitzak baino ez dira. Germaniako gerren historia idatzi nahi dut. Euskarazko lehenengo idazkina.)

Zenturioia hitzik gabe geratzen da.

**Legionarioia**

Cáium Iulium Cáesarem veheménter cólo. Béllum éius Gállicum archetypum mihi est. Izugarri miresten dut Julio César. Haren Galiako gerra eredu gisa daukat.)

**Zenturioia**

At, miser fili mi, Cáius Iúlius Cáesar latíne scripsit! (Baina, seme gaixoa, Julio Césarrek latinez idatzi zuen!)

**Legionarioia**

Scio equidem. (Jakina.)

**Zenturioia**

Febriculósum te esse mihi vídeor, fructus forte ex púgnae contentióne... (Ulertzen dut, uneko beroaldia da hau, ezta? Borrokaren tentsioak eragindakoa...)

**Legionarioia**

Non, Centúrio; iam duo mensis sunt cum in re laboro. (Ez, zenturioia, bi hilabete eman ditut horretan.)

**Zenturioia**

Adhúc quáttuor vocábula tántum scripsísti. (Lau hitz baino ez dituzu idatzi.)

**Legionarioia**

Longa et ardua res est. Meae linguae vocabula barbara etiam sunt. Capienda mihi sunt singula et mansuefacienda. Quasi papiliónes venéris. (Denbora behar du. Nire hizkuntzako hitzak basatiak dira oraindik. Banan-banan ehizatu behar

izaten ditut, eta, gero, otzandu.  
Tximeleta-ehiza bezalakoxea da.)

### **Zenturioia**

(*Irribarrez*) Papiliónes venári! Spero  
testimónium túum probatúrum tribunálem.  
Et si vis consilium admíttere, língua  
cum futúro scríbe. Scríbe latine!  
(Tximeleta-ehiza! Epaitegiak ontzat  
emango al du zure testigantza. Aholku  
bat onartzen badidazu, etorkizuna duen  
hizkuntza batean idatz ezazu. Idatz  
ezazu latinez.)

## **16. HEMEN ETA ORAI**

Doktoreak kanta jarraitzen du.

### **Doktorea**

Etrorkizuna duen hizkuntza batean! Ja!  
Jakín izan balu zenturioi horrek...!

### **Gizona**

Gustatu zaizu?

### **Doktorea**

Zuri ez, ala?

### **Gizona**

More or less.

### **Doktorea**

More or less? (*Irriz*) Latinari partidoa  
irabazi diogu: latinak 0-euskerak 1!

### **Gizona**

Nik ez dut partidu horretan jokatu.

### **Doktorea**

Emozio pixka bat, gizona! Egon zaitez  
harro euskalduna izateaz!

### **Gizona**

Harro euskaldun izateaz? Horrela jaio  
nintzen, ze meritua dut?

### **Doktorea**

Baina...

### **Gizona**

Egon zen behin poeta zoro bat, horri  
buruzko ideia propioak zituena.

## 17. BEDERATZIGARREN FABULA. "MALDIZIO BETIKOA"

**Gizona**

XX. mendearen erdialdea zen.  
Bartzelonako unibertsitatean ari ziren  
ikasle euskaldunek ekitaldi kultural  
bat antolatu zuten.

Bi ikasle euskaldun sartzen dira.

**Gizona**

Unibertsity hartan euskaldun asko zeuden  
orduan, klase eta kondizio  
desberdinekoak, baina euskerak batzen  
ziteten.

*Ikasleak kantuan hasten dira. Pout purri bat.*

***Ikasle euskaldunak***

*Guztiok gara euskaldun  
guztiok anaiak gera...  
gu euskaldunak gara,  
euskalerrikoak...  
Euskara guk dugu  
gu gara euskaldunak...  
Zazpi Euskalherriek  
bat egin dezagun...*

**Gizona**

*Ekitaldi horretarako Bilboko poeta ero  
hura konbidatu zuten.*

*Eskenatokian Gabriel Aresti (emakumezkoa) sartzen da.*

***Ikasle euskaldun 1 eta 2***

*Aupa Gabriel! Gora Aresti! (Kantatuz)  
"...hau dek umoria, kontsolatzeko, euskal  
jendia..."*

*Ikasleak ixiltzen dira, Aresti hitz egitera doa.*

**Gizona**

*Poeta zoro horrek ez zeunak bilorik  
ahoa. He was scandalous. Entzun zer  
kantatu zien.*

*Arestik bere poema bat kantatzen du.*

**Aresti**

*"Zuei,  
Bartzelonako euskaldun*

unibertsitate mutilak,  
 eitan diotsuet  
 zuen artetik batek  
 baldin eta explotatzen badu  
 hemendik hamar edo hiru urtera  
 beraren anaia, obrero edo kontadorea...  
 hori,  
 zuen arteko hori,  
 nere maldiziorik borobilenarekin  
 ornituko dudala  
 Mundu honetako  
 puta semerik semeena bezela"

Gizonak Arestiren betaurrekoak ipini, eta fabulan sartzen da. Arestiren ondoan kokatzen da, eta Arestiren hitzak errepikatzen ditu.

**Aresti eta Gizona**

"...puta semerik semeena bezela"

**18. HEMEN ETA ORAIN**

**Gizona**

Poeta zoro horrentzat baziren identity baino gauza inportanteagoak. Eta hala ere, gutxik maitatu zuten euskera berak beste.

(...)

**Gizona**

Nagusia zelarik ikasi zuen. Euskaldunberria izan zen, euskalduberririk ez zegoenean. Berak ba zuen meritua, eta ez nik. Bera egon zitekeen harro euskaldun izateaz, eta ez ni. Amets bat bazuen: bere amets hartan nazioak adiskide eta solidarioak ziren. Hizkuntzak ez ziren mugak.

**10. HAMARGARREN FABULA. "NAZIOEN ADISKIDANTZA"**

Gizona (Aresti) eskenatokiaren erdian kokatzen da, mikrofono baten aurrean.

**Gizona**

Zatozte bertsolariak. Laurak.  
 (Doktoreari) Zuk ere bai.

Doktorea bertsolariekin batzen da.

**Gizona**

Gaia, herri eta hizkuntzen arteko  
elkartasuna. Puntuka, espainolak hasita.

**Eus**

Baina nola... Laurok batera?

**Gizona**

Bai.

**Cas**

Pero... ¿No sería mejor que cada uno cante  
por separado? Cada lengua tiene sus  
rimas.

**Gizona**

Saiatu zaitezte.

**Gal**

Os cuatro xuntos e imposible.

**Cat**

No sabem cantar junts.

**Gizona**

Egizue aproba.

*Lau bertsolariak batzen dira doinua adosteko.*

**Cas**

*La de la diversidad  
es nuestra única bandera.*

**Gai**

*O arranxo entre distintos  
non é unha quimera.*

**Kat**

*Podem viure tots junts  
cada un a la seva manera.*

**Eus**

*Gaztelera, gallego,  
katalana edo euskera.*

**laurak**

*Gaztelera, gallego,  
katalana edo euskera.*

.....

**Gai**

Entre bo ou mal talante,  
pa o primeiro me decanto.

**Kat**

Estimo totes les llengües,  
fins i tot el esperanto.

**Eus**

Gora beti elkar bizitza.  
Intolerantziari planto

**Cas**

En cuestión de identidades,  
tanto monta, monta tanto.

**Laurak**

En cuestión de identidades,  
tanto monta, monta tanto.

.....

**Kat**

Antigament aquest estat  
non tenia pau alguna.

**Eus**

Falta zen bakea eta  
falta zen askatasuna.

**Cas**

Las culturas diferentes  
no tenían su tribuna.

**Gai**

Ser distinto en ese tempo  
fue moi mala fortuna.

**Laurak**

Ser distinto en ese tempo  
fue moi mala fortuna.

.....

**Eus**

Gaur egun bizikidetza  
ematen du hain erreza!



**Gai**

*Respecta sempre aos pequenos  
se queres ter grandeza.*

**Cas**

*La justicia se cimienta  
sobre la delicadeza.*

**Kat**

*Brindem per l'enteniment  
amb cava o amb cerveza!*

**Laurak**

*Brindem per l'enteniment  
amb cava o amb cerveza!*

**20. HEMEN ETA ORAIN**

Bertsolariak joan dira.

Gizona bakarrik geratu da, azkeneko lerroa errepikatzen.

**Gizona**

Ezer ez naiz,  
eznaiz ezer, ezpada  
naizena.

Ni naiz naizena,  
bai, naizena,  
ez eznaizena.

Makinaren bip bipak eteten du bere kantua.

**Gizona**

Ordua heltzen ari da, isn't it?

Doktorea oso urduri jartzen da.

**Doktorea**

Zu lasai egon.

**Gizona**

Lasai nago.

**Doktorea**

Dena prest dago une hau goxoa eta  
mingabea izateko, zu lasai egon.

**Gizona**

Baietz, ba, take it easy.

**Doktorea**

Lasai. Dena ondo joango da.

**Gizona**

I'm sure.

Doktoreari emozioa gainezka egiten dio.

**Doktorea**

Dena ondo joango...

Doktoreak Gizona besarkatzen du, erabat hunkitua.

**Doktorea**

Asko sentitzen dut...!!!

**Gizona**

Et, et, et... Dramarik ez.

**Doktorea**

Asistantoa etorriko da dena prestatzeko.

Doktorea irteten da, negar egiteko zorian.

**Gizona**

Aizu!

Doktorea gelditzen da.

**Gizona**

Casuality ederra izan da zu aurkitzea.

Une horretan Asistantoa sartzen da.

Doktorea irteten da, hunkituta.

**Asistantoa**

Saluton.

Gizonak irri egiten dio.

**Asistantoa**

Kušu sur la krampo, bonvolu.

Gizona kamilan etzaten da.

Asistantoak Gizona makilatzen hasiko da.

**Gizona**

Mi jam mortis, ne? Mi diras čar mi vidas anĝelon.

Asistantoak irri egiten du.

**Asistantoa**

Ripozo, sinjoro.

**Gizona**

Gorpu polita utzi, eh! Ze ordutan bukatuko duzu turnoa?

**Asistantoa**

Pardonu?

**Gizona**

Kiun foron finas vian turnon?

**Asistantoa**

(Irriz) Estas vi tre felica!

**Gizona**

Pozik egoteko motibua daukat!

**Asistantoa**

Eh?

**Gizona**

Mi havas kialon por esti feliça.

**Asistantoa**

Ah! Kiel bone.

**Gizona**

Aurkitu egin dut. Behar nuena aurkitu dut! (...) Mi trovis kion mi bezonis.

Asistantoak liburua hartzen dio.

**Gizona**

(Adeitsu) Gustora eskeiniko nizuke, baina beste bati eman behar diot.

Asistantoak liburua bueltatzen dio, lotsaturik.

**Asistantoa**

Pardonu.

Asistantoa joaten hasten da.

**Gizona**

(...) Zuk ere aurkituko duzu behar duzuna, ziur nago! Vi trovos kion vi bezonas! Estu certa!

**Asistantoa**

Bonvolu, ne ridu min.

**Gizona**

Ez nago adarra jotzen. Ni estas serioza.

Doktorea sartu da besteek ikusi gabe eta entzuten du.

**Asistantoa**

Signoro, mi estas asistanto. Mi ne havas vivon. Mi laboro. Una tagon, et alia tagon, et alia tagon. Mi laboro. Mi ne havas vivon, ne habas futura. Vi konprenas min?

Asistantoa Doktorea ikusten du eta larritu egiten da.

**Asistantoa**

Pardonu.

Asistantoa desagertzen da.

**Doktorea**

Vi... parolas la tutmondan lingua!

**Gizona**

Eh?

**Doktorea**

Vi trompis min. Vi parolas la...

**Gizona**

Ez dizut ulertzen.

**Doktorea**

Sufiçe! Mi vidis vin!

**Gizona**

Ondo da, Bai! Hizkuntza globala egiten dut! "I'm sorry, I'm very sorry!"

**Doktorea**

Kial li trompis min?

**Gizona**

Euskeraz egin, mesedez.

**Doktorea**

Kial? Vi parolas la tutmondan...

**Gizona**

Hiltzen ari naizelako!!!

Doktorea ixiltzen da.

**Gizona**

Fuck! Ez dut txantaila emozionala erabili behar. Forget it.

**Doktorea**

Nirekin jolasten ibili zara.

**Gizona**

May be. Ez duzu jakin nahi zergatik?

**Doktorea**

Ez. Beste mediku bat etortzeko eskatuko dut.

Doktorea irteten hasten da.

**Gizona**

Oraindik ez duzu entzun azken fabula!

**Doktorea**

Eta ez dut entzun nahi! Nahikoa da!

**Gizona**

Zure aitari buruzkoa da!

Doktorea geratzen da.

**Doktorea**

Zer?

## 21. HAMAİKAGARREN FABULA "RESPECT ETA CONSIDERATION"

**Gizona**

Ospitale honetan gertatu zen, duela one hundred urte. Hau bezalako gela batean, nire amona zegoen, gaixorik. Zure aita zen bere medikua.

*Doktorearen aita sartzen da, eta amonaren ondora doa.*

*Doktoreak bere aita ikusten du eskenatokian. Hunkituta, deitzen dio.*

**Doktorea**

*Patro! Mi estas. Via filino. Patro!*

*Doktorearen aita ez da Doktorearen presentziaz ohartzen. Gaixoari kasu egiten dio.*

**Doktorearen aita**

*(Irriz) Kiel vi estas hodiaŭ, virino?*

**Amona**

*Same kiel hieraŭ, doktoro.*

**Doktorearen aita**

*Vi dormis bone?*

**Amona**

Du horoj aũ tri.

**Doktorearen aita**

Vi aspektas bone.

**Amona**

Dankon.

**Doktorearen aita**

Havas bonajn novaĵojn. La operacio iris bone.

**Amona**

Kiel bone!

Mutil gazte bat sartzen da.

**Gizona**

Ikusten duzu gelako atean dagoen gaztetxo hori?

**Doktorea**

Bai.

**Gizona**

Neu naiz. Amona gaixorik dago eta ni beldurrez.

**Amona**

Sartu barrura, my dear, ez geratu hor!

Mutils sartzen da.

**Mutila**

Hello, Granny, zer moduz?

**Amona**

I'm ok. Doktoreak dio ez naizela mementuz hilko! (Irriz) Itxaron beharko duzu!

**Mutila**

Eta noiz etorriko zara etxera?

Mutila Doktorearen ama hor dagoela ikusten du.

**Mutila**

Barkatu. Zera... Pardonu.

**Doktorearen aita**

Vi estas...

**Mutila**

La nepo de la damo.

**Doktoarearen aita**

Bonvenu.

**Mutila**

Same.

**Doktoarearen aita**

Kiu lingvo estas tio?

Mutila ixiltzen da.

**Gizona**

Ze hizkuntza zen hura galdetu zidan zure aitak.

**gizona eta mutila**

...baina ez nion esan.

**Amona**

Ez zaitez lotsatu!

**Mutila**

Ez nago lotsatuta!

**Doktoarearen aita**

Kio estas la problema?

**Gizona**

Jendaurrean euskaraz egiteak lotsa ematen zidan, hori zen arazoa.

**Amona**

Li hontas.

**Mutila**

Mi ne hontas!

**Gizona**

Lotsa ematen zidan, bai.

**Mutila**

(Doktoareari) Ez nuen desberdina izan nahi. Nik normala izan nahi nuen, mundu guztia bezalakoa.

**Doktoarearen aita**

Ne sentu honton. Ne gravas estu malsama.

**Amona**

Arrazoi du doktoreak. Ez duzu zertan lotsatu.

**Mutila**

Mi ne hontas!!! Lasu mi sola, malyuna!

**Doktorearen ama**

Parolu en via lingvo. Mi ŝatas vin aŭskultas.

**Mutila**

(Buruaz ezetz eginez) Ne!!! Ni ne farostion!!!

**Gizona**

Gure hizkuntzan egiteko eskatu zigun. Gustatzen zitzaiola haren soinua, baina nik ez...

**Amona**

Pardonu lin. Li estas tre juna...

**Gizona**

Amonak barkatzeko esan zion... "Gazteegia da..."

**Amona**

...kaj kredas ke, ĉar estas malmultaj, ni ne valoras.

**Gizona**

"...eta gutxiago garelako gutxiago balio dugula uste du."

**Mutila**

Bai, amona, ez dugu ezertarako balio.

Doktorearen aita badao.

**Gizona**

Hurrengo egunetan zure aita oso okupaturik egon zen. Badakizu zertan?

**Doktorea**

Bai. Ni txikia nintzen, baina gogoan daukat. Bere langelan sartuta egon zen, lan da lan, gau eta egun. Ez zitzaion molestatzea gustatzen, baina sartu nintzen.

Doktorearen aita testu bat buruz ikasten ari da. Kostata.

**Doktorearen aita**

"Ze lü tik ji nik dei sü har bat, loe tarik erauz te ra..."

**Doktorea**



*Quion vi faras, papio?*

***Doktoarearen aita***

*Mi lernas kanton.*

***Doktoarea***

*Kanta bat ikasten ari zela esan zidan.  
(Aitari) Kial?*

***Doktoarearen aita***

*Por diri adiau virino.*

***Doktoarea***

*Emakume bati agur esateko. (Aitari) Eta niri ez didazu kantatuko? Ne kantos gin al mi?*

***Doktoarearen aita***

*Mi ankau kantos al vi, iomete.*

***Doktoarea***

*Niri ere kantatuko zidala, ikasi orduko.*

*Doktoarearen aitak bere alabari keinu xaqmur bat egin eta badoa.*

***Gizona***

*Zure aitak ikasi zuen kanta hura. Eta begira nola esan zion agur nire amonari. Amonari eta bere hizkuntzari respect eta consideration erakutsi zion.*

*Amona mutilarekin irteten da ospitaletik. Doktoarearen aita zai dago atarian. Eta kantuan hasten da.*

***Doktoarearen aita***

*Zelütik jinek dei sühar bat,*

*loetarik erauztera...*

*Amari bi koblen huntzeko*

*bortxatü niz sinestera...*

*eta ez niz segür herabe*

*Ama zuri kantatzera,*

*hain beitzira andere handi,*

*ümila eta ejerra.*

## **21. HEMEN ETA ORAIN**

*Gizonak etzanda jarraitzen du, ahul.*

*Doktoarea erabat hunkituta dago. Kantaren azken lerroak errepikatzen ditu bere kolkora.*

**Doktorea**

...hain beitzira andere handi,  
ümila eta ejerra.

**Gizona**

Amonari detaile txiki horrek bizipoza eman zion. Zaharberritu zen. Luze iraun zuen bizirik. Berra hil zenetik ez nuen berriro euskeraz egin. Nire biztzatik desagertu zen guztiz. Baina bukaerara heldu eta barruan abots bat hazten joan zait, abots bat, asfaltoa bera zulatzeko gai den belartxo baten indarra duena, esaten didana...

Gizonaren arbasoak hurbiltzen dira: Aita, amona eta birraitona.

**Arbasoak**

Ez utzi hiltzen! Ez utzi hiltzen!

**Gizona**

Beranduegi, I know. Beranduegi! Baina mediku horren alaba ospitalean zegoela jakin nuenean, esperantza izpi bat piztu zitzaidan. Kasualitatea nire alde zegoen!

**Doktorea**

Kasualitatea...?

**Gizona**

(Irriz) Karbono eta nitrogerno molekula bana ospitale honetan elkartu dira, temperatura eta presio egokiarekin.

**Arbasoak**

Liburua! Eskeiniozu liburua.

**Gizona**

Bai!

**Arbasoak**

Hau da une egokia!

**Gizona**

Baietz ba!

Doktorea ez da arbasoen presentziaz ohartzen.

**Doktorea**

Zer?

**Gizona**

Ezer ez!

Gizonak gordeta daukan Kantutegi zaharra eskeintzen dio.

**Gizona**

Zuretzat da.

Doktoreari kostatzen zaio erreakzionatzea.

**Doktorea**

Nola?

**Gizona**

Nire ondarrerik preziatuena. Zuretzat. Eta ez didazu eskerrik eman behar! Zelako pagotxa, ez?

**Doktorea**

Baina... (...) Zertarako ematen didazu?

**Gizona**

Nola zertarako? Opari bat da! Opariek ez dute azalpenik behar! Kontratu honek ez du letra txikirik! (...) Beno... bai... huskeria bat... Nire familiako tradizioa ezagutzen duzu.

**Doktorea**

Zure hizkuntza gordetzeko eskatzen didazu?

**Gizona**

Eskatu ez, eskeini!!!

**Doktorea**

Euskalduna izatea?

**Gizona**

Elebiduna.

**Doktorea**

Burutik jota zaude.

**Gizona**

I know it.

**Doktorea**

Zergatik egiten didazu hau?

**Gizona**

Survival instint.

**Doktorea**

Baina zergatik niri?

**Gizona**

Jesus!! Zenbat galdera. Nik ez nuen hainbeste azalpenik eskatu liburua eman zidatenean!

Arbasoei oso eskasa iruditzen zaie gizonaren argudioa.

**Gizona**

Hizkuntzak ez dira aukeratzen. Norberaren amak ematen digu, baimenik eman gabe. Amak edo... ospitalean dagoen agure exzentrikoren batek.

**Doktorea**

Eman arrazoi bat. Eman zentzuzko arrazoi bakarra nik "opari" hau onartzeko.

**Gizona**

Arrazoi bat...?

**Doktorea**

Bai, arrazoi bat.

Gizonak arbasoei begiratzen die, laguntza eske, baina hauek bere eginkizuna dela adierazten diote.

**Gizona**

Nire "produktoa" saltzeko eskatzen didazu. Zer nahi duzu esatea? Mundu gris hontan kolorea izateko aukera eskeintzen dizudala? Desberdina izatearen xarma? Ondare kultural bat gordetzearen garrantzia? Hitzak... Hemen kontu bakarra dago. Gogorik duzu? Nai ala ez.

**Doktorea**

Gogoa? Hara... Mundu liluragarri bat erakutsi didazu. Nahasia, eroa, bizitzaz beterikoa.

Arbasoek ilusioz erreakzionatzen dute.

**Doktorea**

Baina mundu hori bukatu da.

**Gizona eta Arbasoak**

Ez!

**Doktorea**

Iragana erakargarria da, baina...

**Gizona**

Ez da iragana. Ni ez naiz iraganekoa! Gero bat egon daiteke. Zuk nahi baduzu!

**Doktorea**

Baina hiltzera zoaz, eta ez dizut gezurrik esan nahi. Erokeria bat da.

**Gizona**

Ez da...

**Doktorea**

Eta ez duzu eskubiderik ni errudun sentiarazteko. Nik ez daukat inolako zerikusirik zure mundu horrekin. Bakarrik nire amak kanta bat kantatu zuelako, uste zenuen nik...?

**Gizona**

Baina...

**Arbasoak**

Eustsi! Eustsi!

Gizonak amore ematen du azkenean. Arbasoei etsipenez begiratzen die.

**Gizona**

Arrazoi duzu. Erokeria bat izan da.

**Doktorea**

Bai.

**Gizona**

(Irriz) Intuizioak esaten zidan hospitale honetan aurkituko nukeela...

Doktoreak bere itzultzaile automatikoa deskonektatzen du.

**Doktorea**

La intuo ne fukciis. Mi ne povas fari. Tiu estas mia linguo, la tutmondan linguo, mi je havas alian. Pardonu.

**Gizona**

(Arbasoei) Ikusi duzue. Ahal nuen guztia egin dut, ahal nuen guztia.

**Doktorea**

Kun kiu...?

**Gizona**

(...) Tsssttt! Ez duzu entzuten? (...) Orain agur kanta kantatuko didate.

**Arbasoak**

Zu bezelako hurrek  
lo egin dezaten,

ilargia hasi da  
zerua pintatzen.

Txoriak lotan daude  
hagitz da berandu,  
ilargiak erreka  
erdia edan du.

Gizona hiltzen da.

Doktorea hunkituta dago.

**Doktorea**

Preparu la korpon!

Doktoreak azken begirada ematen dio gizonari eta badoa.

Asistantoa sartzen da.

Gorpua atontzen hasten da.

Halako batean, liburua ikusten du. Lehen ikusi duen liburu bera. Ikusi nahi du. Albo batera eta bestera begiratzen du, badaezpada ere. Azkenean hartu eta bazter batera doa.

Liburua irekitzen du.

Musika entzuten hasten da.

**Asistantoa**

Hiru milagarrenean,  
apirilak bostean,  
euskarak iraun zuen bizirik  
ospitale batean.  
Ez da patua, ez asturua,  
ez da mirakulua,  
baizik irauteko gogoa,  
bizitzeko amorrua.

**Gizona (Off)**

Ondo egina, laztana!

**Asistantoa**

Nola?

**Gizona (Off)**

Casuality ederra izan da zu aurkitzea,  
lasztana!

**Denak**

Bertze jendek uste zuten  
dessaertuko zela,  
orai guk dugu porogatu  
engainatu zirela.  
Ez dago ixila, ez dago hila,  
gogoratu dadila:  
Geroan biziko da euskara  
ehun urte edo mila.